

# **Iraupen luzeko irakasleriaren garapenaren inpaktu-mailak: kontzepzioetan, hezkuntza hurbilketan eta kultura instituzionalean**

**Tesiaren egilea:** Alba Madinabeitia Ezkurra

**Unibertsitatea:** Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU)

**Saila:** Hezkuntzaren Teoria eta Historia Saila

**Tesi-zuzendaria:** Idoia Fernandez Fernandez / Clemente Lobato Fraile

## **TESIAREN LABURPENA**

Ikerlan honek unibertsitateko irakasleriaren garapenaren (IG) adiera konprensitotik abiatuta, UPV/EHUko ERAGIN IG programaren garapen estrategiaren inpaktua du aztergai. Horretarako bi inpaktu-eremu hartzen dira kontutan, batetik irakasleriaren maila indibiduala eta bestetik antolakuntza zein erakunde arlokoa. Lan honek berebiziko arreta eskaini dio iraupen luzeko irakasleriaren garapen (IG) estrategiek duten eraginkortasunaren inguruan ebidentzia enpirikoak luzetara ekoizteari, hain zuzen ere, ERAGIN programa kasu gisa hartuta. Lanaren egitura orokorra laburtzearen, hona, hurrenez hurren, atalka landutakoa.

Lehen atala osatzen duen artearen egoerari dagokiona, sekuentzia oso baten kate-mailak diren hiru kapitulutan eraiki da. Lehenengo kapituluan irakasleriaren garapena (IG) terminoaren kontzeptualizazioa jorratu dugu, hitz-gako honek, jatorritik gaur arte, goi-mailako hezkuntzan duen ulerkeraren eta genealogiaren prismetatik.

Bigarrenean, IG-aren inpaktu-mailek norbanakotik abiatuta organizazio mailara iritsi bitarteko zubiaren azterketa dugu hizpide, inpaktuaren analisia trazu lodi horren hiru interes-gunetan fokatuz (irakasleriaren irakaskuntza kontzepzioetan eta hurbilketan; ikasleriaren ikaskuntza pertzepzioetan eta emaitzetan; eta kultura instituzionala osatzen duten hezkuntza lidergoan eta ikas-irakaskuntzara ekarritako ikerkuntzan).

Hirugarren kapituluak, IG estrategien eraginkortasuna ipintzen du ikusmiran. Bi dira geure buruan darabilzkgun galderak: bata, zein prozedurez eragin behar dugun eraginkortasun maila gehienak betetzeko; eta bestea, eragin hura nola ikertu. Bertan, IG-erako estrategia-sorta baten analisia aurkituko duzue.

Bigarren atala, ikerketa enpirikoari dedikatutakoa dena. Lehenengo urratsean, lan enpirikoaren hauspotzat aukeratu dugun berrikuntza metodologikoaren azalpen zehatza jorratu dugu. Behin ikerkuntzazko testuinguruaren nondik norakoak mugarrituta, ikerketa zioa eta helburuak kateatu

ditugu; eta segidan, ikerketa diseinu metodologiko kualitatiboaren argudia-keta sakona eraiki ere bai.

Hirugarren ardatzak emaitzen analisisa eta eztabaida dakartza; gurean, interpretazio txostena deitu duguna. Laburki, iraupen luzeko estrategiaren bidez eta ko-mentoriatan taldeen funtzionamenduan oinarrituz, ikerlan empirikoak IG-ak irakasleriaren ikas-irakaskuntza kontzepzioetan eta hurbilketan izandako inpaktuaz ageriko ebidentziak eman ditu, baina baita ikas-irakaskuntzaren inguruan ikertzeko (scholarship of teaching and learning) eta irakaskuntza eremuetan liderra izateko gaitasunaz ere. Honako alderdiok erakundearen antolakuntza mailako aldaketan murgiltzen gaituzte eta curriculum hibridoaren pausokako gauzapenaren alde lan egiten dute. Ideia batean, garapen instrukzionalaren tradizioa gaingitu eta irakasle akademikoa ez ezik ikas-irakaskuntza esparruan liderra ere baden profesionalaren garapen integralaren berora proposamen berria egikaritu izanak hamaika ikaskuntza ekarri ditu. Hortaz, instituzioa bere osotasunean hartuta inpaktu anitzak eragin dituen iraupen luzeko garapen estrategia alternatibo bezain orokorraz mintzo garela esan dezakegu.

Azkenik, analisi eta interpretazio globaletik eratortzen diren azkeneko ondorioak argiratu dira; eta ikerlanaren itxieran, aurrera begirako erronkak profilatu ditugu, batik bat, ikerketa honek zabaldu dituen bi esparru zehatzei begira, ikasleen ikaskuntzari eta mentoreen arteko hartu emanari, hain zuzen.

*‘Emoziozko pentsamendu Dibergente/  
Konbergentearen’ (EDIKO) eredu teorikoa,  
ebaluazioa eta sustapena goi-mailako hezkuntzan*

**Tesiaren egilea:** Goretti Soroa Martinez

**Unibertsitatea:** Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU)

**Saila:** Oinarrizko Prozesu Psikologikoen eta euren Garapena

**Tesi-zuzendariak:** Aitor Aritzeta Galan eta Nekane Balluerka Lasa

## TESIAREN LABURPENA

Egun arreta berezia jasotzen ari den ikerketa-lerroa da emozioen eta sormenaren arteko erlazioarena. Gainera, hezkuntza eta lan arloetan ikasle nahiz langileen eraginkortasuna areagotzearen gakoa gaitasun sozioemotionalak eta sortzaileak lantzean egon daitekeela uste da. **‘Emoziozko pentsamendu Dibergente/Konbergentea’ (EDIKO)** deritzon fenomenoaren bitartez, tesi honek emozioen eta sormenaren elkarreragina ulertzeko, ebaluatzeko eta sustatzeko proposamen hirukoitza dakar. Lehenendabizi, EDIKO bere osotasunean ulertzen lagunduko digun eredu teorikoa aurkezten da, zeinak estilo kognitiboak (dibergentea eta konbergentea), aurredisposizio afektiboak (positiboa eta negatiboa) eta jokaerak (proaktiboa eta prebentiboa) sormenezko prozesuetan uztartzen dituen. Bigarrenik, EDIKO neurtzeko baliozkoa eta fidagarria izango den tresna eskaintzen da, zeinak estilo afektibo-sortzaileak neurtzeaz gain, emozioek sormenean duten eragina (erraztuz edo oztopatuz) ebaluatzen duen. Hirugarrenik, EDIKO goi-mailako hezkuntzan sustatzeko esku-hartze programa bat diseinatzen da, zeinak arlo pertsonalean eta profesionalean autoezagutza, gaitasun sortzaileak eta emozionalak garatzea duen helburu. Laburbilduz, tesi honek egindako proposamen hirukoitza (**EDIKOn eredu teorikoa, neurketa-tresna eta esku-hartze programa**) ikerkuntza eta hezkuntza arloentzat ekarpen esanguratsua bezain erabilgarria izatea aurreikusten da; alde batetik, emozioen eta sormenaren arteko elkarreragina ulertzen eta ebaluatzen lagunduz, eta bestetik, gazteei begira funtsezkoak diren hiru prozesu psikologikoak (emozioa, kognizioa eta motibazioa) autoezagutza eta sormena garatzeko programa batean uztartuz.



# **Jolas sakona: Txapelketaren prozesu errituala eta bertsolariaren arrazoi sortzailea XXI. mendeko Agoran**

**Tesiaren egilea:** Jexux Larrañaga Arriola

**Unibertsitatea:** Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU)

**Saila:** Balioen Filosofia eta Gizarte Antropologia Saila

**Tesi zuzendaria:** Joseba Zulaika Irureta

## **TESIAREN LABURPENA**

Tesi honetan txapelketaren paradoxa sakondu nahi izan dugu. Txapelketak gizarteratzen duen joko-eskemaren lehia benetakoa izanik ere, jolasaren eremu sinbolikoan enbortzen duela bere esangura-tasun kulturala defendatu dugu, hau da, egiletza kolektiboaren eta izaera kulturalaren ardatzean. Tesiaren hondoan zera dago: jokoaren azalaren barrutian, «jolas sakonaren» eremu kulturala azalertzeko ahalegina, hau da, kulturaren espazio irudikatzailea eta testuinguru antropologiko osoa. «Jolas sakonak», testuinguru osoaren balio kulturala da jomugan jartzen duena. Hortaz, txapelketaren gertaera izan da gure iker objektua eta txapelketaren prozedura errituala interpretazio kulturalaren lurra bihurtu zaigu. Halaber, azaletik (txapelketa-joko) muinera (komunitate-jarduera ardatz) egindako azter bidean, kultur gertaera baten testuinguru emozionala larrutzen egin dugu ahalegina. Arrazoia eta emozio-fluxuen ehunduran, subjektibotasun kulturalaren langaia planteatu dugu. Izan ere, espazio erritualaren afektuzko ehundura, funtsean, norgintzaren arazoa edo kultur beregaintasuna planteatzeko modu bat izan da. Hori delako, hain zuzen, tazituki, identitate kulturala ikertzeko bide bat.

Lehenik, txapelketaren gertaera, marko epistemiko baten baitan kokatu dugu, *kultura-testuaren* balio beregaina aitortu diogu. Bertotik, eremu soziokulturalaren geruza inguratzailea deskribatu egin dugu, ulergarriago egin ez iraganetik berez emanda zetorrena, eta balioan jarriz kulturaren ekosistema osoa. Berau, gizarte prozesu baten baitan kokatu eta ulertu beharko dugu. Ondoren, komunitate jardunbidea, elkarrekintza eta elkarbizitza barne-harreman ehun bizigarrian xehatu dugu. Kultur jardunbidearen arkeologia errituala eta liturgikoa, kulturaren espazio estetikoan garatu dugu. Izan ere, adierazle diskurtsibo, estetiko, errituala eta emozionala baitarazten duen ekosistema bizigarria dela azpimarratu dugu, sistema sinboliko partekatua funtzio irudikatzaile ahaltsua betetzen du. Beraz, testuinguru oso baten balioa, komunitate jardunbidearen koordinatu kulturalen bai-

tan kokatu dugu. Hain zuzen, ardatz diakronikoan, gizarte tradizioaren balio trinkoaren mundukera lorratza bistaratu dugu; eta ardatz sinkronikoan, XXI mendeko Agorak, gaur eta hemen betetzen duen funtzio kulturala, egungo zola estetikoaren berritasunetik iragarri dugu. Txapelketen katebegiaren bi muturren artean, mundu erreferentzialaren bilakaera eta aldaketa azaldu dugu, komunitatearen bitartekaritzak denboran berretsi duen datu kulturala bihurtzen zaigu. Haatik, bere hitza ekoizteko erabakimenez biziberritzen den giza taldea, bere harremanezko izaeran baieztatzen ari da.

Ondorioz, XXI mendeko Agoraren zoladura estetikoaren *eraberrikuntza paradigmak*, «Gu» eraberrituaren balio berrirantz begira jartzen gaitu. Posmoderniaren subjektu bakarzale, indibidualista, lehiakorra eta sobera arrazionalari kontrapuntua eginez, subjektu errotua, komunitarioa eta sortzailearen giza balio aberatsa kontrajartzen zaio Agoran. Alabaina, bertso-lariaren biografiaren balioa herria hitzetan sortzeko ahaltsun metaforizatuari loturik aurkitu baldin badugu, Agorak erakusten diguna da, subjektu berriranzko trantsizioa, elkarbizitzaren balio malguagoan erein beharrekoa dela. Espazio estetikoaren bizigarritasunak, sakontzeko garaiak bizi duela erakusten digu, hots: muineko nor kolektiboa aurrez-aurre begiratzeko jarrrerak biziko du gerora.

# **Hizkuntza eta kultura aniztasuna Bilboko Eskoletan. Euskararen erabileran eta euskal kultur praktikan eragiten duten faktoreak**

**Tesiaren egilea:** Naiara Berasategi Sancho

**Unibertsitatea:** Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU)

**Saila:** Gizarte Psikologia eta Portaera Zientzien Metodologia

**Tesi-zuzendaria:** Maria Jose Azurmendi eta Nekane Larrañaga

## **TESIAREN LABURPENA**

Egungo gizarteetan, geroz eta ohikoagoa da, egoera eleanitz eta kultur anitzak topatzea. Oro har, mundu mailako ikuspegitik gizarteak gero eta pluralagoak dira eta gaur egun nekeza da elebakartasunaz edo kultur bakartasunez hitz egitea; nahiz eta errealitateak askotarikoak diren, geroz eta gehiago gizarteak ere ele eta kultur anizdunak direlako.

Hizkuntza eta kultur-ukipen egoera Euskal Herrian (EH) ez da berria, urte asko daramatza euskarak eta espainierarekin eta frantsesarekin batera bizirauten. Egoera honetan hizkuntza berriak ere sartu dira, eta Euskal Herria aniztasun horren adierazle ere bada. Etorri berrien kopurua gero eta handiagoa da, eta nahiz eta oraindik beste zenbait lurraldeekin konparatuz baxua izan (Katalunia, esaterako), hizkuntzen eta kulturen presentzian eragin nabaria du. EHko kaleetan, euskara, frantsesa eta espainiera ez ezik, bestelako hizkuntzak ere entzuten dira: wolofera, errumaniera edo tamazight, adibidez. Egoera honetan, euskarak iraun dezan nahi bada, eta bestelako hizkuntzak ere bere presentziak izan dezaten nahi bada, horretarako bideak urratu beharko dira.

Euskal-eskola ere aniztasun horren adierazle da, eta ezin uka eskola ere erronka handi baten aurrean dagoela. Euskararen normalizazioaren bidean oraindik ere egiteko handia du eskolak, ikasleak elebidunak (eta eleanitzak ere) izan daitezen. Hortaz, garrantzitsua izango da bide horretan plangintza, proiektu, programa... egokiak garatzea, benetako elebitasun hori lortzeko bidean. Bestalde, etorri berrien benetako integrazioa gerta dadin, ezinbestekoa izango da etorri berriek bertako hizkuntzak barneratzea, baina, aldi berean, beraien hizkuntza eta kultura ere neurriren batean mantenduz. Eta hori sustatzeko pausoak eman beharko dira.

Testuinguru horretan, Doktorego Tesi honen nahia da, ikasleen praktika linguistiko (euskara, espainiera eta beste hizkuntza) eta kulturalak aztertzea da. Zehatzago, euskararen erabilera eta euskal-kultur praktika nolakoak diren aztertu nahi da, eta praktika horietan zein faktorek eragiten

duzen, baita etorkizunerako hizkuntza eta kultura plangintzarako egokiak izango diren bideak urratzea ere.

Metodologiari dagokionez, lehengo ikerketaren helburuak zehaztu ditugu eta ondoren ikerketaren bidez erantzuten saiatuko ginen hipotesi zein ikerketa galderak. Aztertutako lagina Bilboko 13 ikastetxetako Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 2. mailan (565 ikasle) eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 4. mailan (424 ikasle) ikasten dauden ikasle autoktono (832 ikasle) eta etorkinak (145 ikasle) osatu dute. Ikasle hauen hizkuntza eta kultur praktikak jasotzeko eta horietan eragiten duten aldagaiak identifikatzeko nahiarekin, galdera itxi eta irekiez osatutako galde-sorta bat diseinatu da.